

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	ENPRESEN ADMINISTRAZIOA	EUSKERA

1 ATALA: 2,5 PUNTU

ETEen Kontabilitate Plan Orokorra kontutan izanik kontabilizatu Liburu Egunkarian ondoren aurkezten diren JASO, SA enpresaren eragiketak:

Oharra: aipatutako zenbatekoetan ez da BEZ gehitu eta enpresak BEZaren erregimen orokorrean dihardu.

1A Ariketa

JASO, SA enpresa 2019 urte hasieran Burlatako baso batean parkina eraikitzen hasi zen. Obrari 3 urteko iraupena aurreikusi zitzaion. Gainera, obra egiteko baimenarekin batera, JASO, SA enpresak parkinaren eraikuntza lanak bukatutakoan ingurua zuhaitz eta landarez baso-berritzeko konpromisoa ere hartu zuen.

Baso-berritze lanari 750.000 €ko kostu eguneratua aurreikusi zitzaion 2019 urte hasieran eta halaxe, kontabilizatu zen. Eguneratze-tasa: urteko %5.

2021 urte bukaeran, parkineko obra bukatu eta zuhaitz eta landareak ere jarri dira. Baso-berritze lanaren kostu zehatza 850.000 €koa izan da eta beharrezko ordainketa banku bidez egin da.

Egin beharreko lana: Kontabilizatu 2021 urte bukaerari dagozkion eragiketak.

1B Ariketa

JASO SA enpresak dendan 30.000 €ko prezioa duen furgoneta eskuratu du 2021eko ekainaren 30ean. Furgoneta berria erosteko, 35.000 €ko eskurapen prezioa izan zuen eta 15.000 €tan amortizatuta dagoen furgoneta zaharraz gain, 20.000 € ordaindu ditu dirutan.

Egin beharreko lana: Kontabilizatu 2021eko ekainaren 30eko eragiketa.

1C Ariketa

2019ko urtarrilaren 1ean, JASO, SA enpresak makina bat muntatzeko atalak eskuratu zituen. Salerosketa kontratuaren arabera, makinaren atalak enpresara ekarri ondoren, JASO enpresako langileek makina honen montaje eta instalazioa eginen zuten.

Makinaren salneurria 100.000 €koa bazen ere, erosketa unean hornitzaileak %3ko deskontua egin zuen promozio bat zela eta. Ordainketa erosketa unean egin zen banku transferentzia bidez.

2019ko urtarrilaren 15ean, makina enpresara ekartzearen garraio gastua eta aseguruia 2.500 € eta 750 €koa izan zen hurrenez hurren. Gastu hauek ere banku transferentzia bidez ordainduak izan ziren.

2019ko maiatzaren 31an, makinaren montaje eta instalazioa egin zuten langileei 5.000 €ko ordainketa egin ondoren, martxan jarri zen makina.

Makinari 8 urteko bizi erabilgarria aurreikusi zitzaion eta 2.000 €ko hondarreko balioa. Beraz, martxan jarri zen egunetik amortizazio lineala aplikatu izan zaio.

2021eko martxoaren 31an, JASO, SA enpresaren jardura maila dela eta 2021 urtean makina handiago baten beharra sumatu da. Ondorioz, makina zaharra 80.000 €tan saldu zaio sektoreko bertze enpresa bati. Salmentaren erdia banku bidez kobratu da salmenta unean, gainerakoa 18 hilabetera kobratuko denez, fakturan 2.500 €ko interesak gehitu dira.

2022ko irailaren 30ean, zenbatekoa kobratu da banku txeke bidez.

Oharra: aipatutako zenbatekoetan ez da BEZ gehitu.

Egin beharreko lana: Kontabilizatu Makinarekin zerikusia duten 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko irailaren 30 arteko idazpen guztiak.

2 ATALA: 2,5 PUNTU

2A Ariketa

IZADI, SA enpresak 2021 urtean 550.000 €ko zerga aintzineko emaitza izan zuen.

Gainera, kontabilizatutako gastuen artean honakoak erregistratu dira: badakigu:

1. Kontabilizatutako finantza gastuen artean BEZ zerga epez kanpo ordaindu izanagatik 600 €ko berandutze-interesak ageri dira.
2. Enpresako langileek astero ONCEko kupoia erosten dute. Kupoia erosteta gastuetan kontabilizatzen da. 2021 urtean 750 € jokatu ziren.
3. Ondoren aipatzen diren balio narriadurak ere kontabilizatu ziren:
 - o Kiebra egoeran dagoen zordun baten 2.000 €.
 - o Foru Ogasunetik konpentsatzeko diren BEZ kuoten 1.500 €
 - o Zorraren mugaeguna 2021eko abenduaren 15ean izan zuen bezero baten saldoa, 2.600 €.
4. 2021eko abuztuaren 1ean 25.000 €tan eskuratutako garraio elementuaren aurreikusitako bizitza erabilgarria 5 urtekoa da. Araudi fiskalaren arabera, amortizazio askatasuna dagokio ondasun honi. Beraz, enpresak, amortizazio osoa 2021 urtean aplikatzea erabaki du.
5. 2021 urtean 80.000 €tan saldutako makinaren ondorioz, 12.000 €ko irabazia lortu du enpresak. Halere, salmentan lortutako diruarekin 105.000 € balio duen izaera bereko bertze makina bat eskuratu da. Berrinbertsioa salbuetsi daiteke beraz.
6. Enpresak sortutako lanpostu finkoak direla eta 2021 urtean 3.000 €ko kenkaria aplika dezake.
7. Atxikipenak eta konturako ordainketak 28.000 €koak izan dira.
8. Enpresari dagokion zerga-tasa %28 da.
9. 2020 ekitalditik konpentsatu beharreko 6.000 € ere baditu.

Egin beharreko lana: Osatu ezazu Sozietateen gaineko zergaren likidazio eskema eta egin kontabilitatean 2021 ekitaldiari dagozkion erregistroak.

2B ariketa

2021 urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin lotutako ondorengo egoerak aztertu.

Egin beharreko lana: Zehaztu zergari atxikiak diren ala ez, zein errenta mota diren, zenbatekoa den errenta hori eta zein zerga oinarritan sartuko ditugun (arrazoitutako erantzunak).

1. Josek 61 ditu eta 2021 urtean ezintasun iraunkor absolutua dela eta. Ondorioz, Gizarte Segurantzatik 18.000 € jaso ditu.

Jose bere jabetzako etxebizitza batean bizi da eta etxebizitza honen balioa 150.000 €koa da. Gainera, bere jabetzako den lokala ere badu alokairuan utzita eta urtean 5.000 €ko zenbatekoa jaso du arrazoi horrengatik. Lokalaren eskuratze balioa 12.000 €koa izan zen (Katastro balioa 7.000 €).

Josek Repsoleko akzio batzuk ere baditu jabetzan, eta 2021 urtean 2.000 €ko dibidendu aktibo gordina eman zioten (PFEZ atxikipena %19). Akzioen administrazio eta zaintza gastuak 75€ izan dira. 2021 urte amaieran akzio batzuk saldu egin zituen eta eragiketa honen ondorioz, 1.500 € gehiago irabazi garbia ere izan zuen.

2. Iزارo anderea ileapaindegi jarduera baten titularra da (epigrafea IAE 972.1). Hain zuzen ere, alokairuan hartutako lokal batean burutzen du jarduera. Jarduera BEZaren erregimen erraztuan sailkatuta dago eta iazko negozio zifra 58.000 €koa izan zen. 2021 urtean Izarok ez dio uko egin zuzeneko zenbatespen Erraztuari eta hauek izan dira urteko bere erregistro liburuetan ageri diren sarrera eta gastuak:

Sarrerak guztira:	55.000 €
Gastuak:	
Langilearen soldata	7.000,00 €
Langilearen Gizarte Segurantzak	1.330,00 €
Titularraren Gizarte Segurantzak	2.500,00 €
Jarduerari lotutako ondasunen amortizazioa ...	1.200,00 €
Urte hasierako izakinak	12.000,00 €
Izakin erosketak	20.000,00 €
Erosketetan jasandako BEZ	4.200,00 €

Urte amaierako izakinak	17.000,00 €
Lokalaren alokairu gastua	2.300,00 €
Asegurua, argia eta uraren gastua.....	12.800,00 €
Ile orrazketa eta mozketa modeloen aldizkariak	250,00 €
Merkataritza eragiketen hartzekoen narriaduratik sortutako galerak	600,00 €
2021 urtean PFEZ dela eta egindako konturako ordainketak	250,00 €

Oharrak:

- Sarreretan ez dira konputatu astero Izaeron izebari ileapaindegian emandako zerbitzuak. Zerbitzu honen balioa 25€koa da eta 2021ean izeba 30 aldiz etorri zen ileapaindegira.
- Ileapaindegian lan handia izan den egunetan, Izarori bere semeak lagundu dio. Ordainetan 2021 urtean 500 €ko eskupekoa jaso du bere semeak. Zenbateko hau langilearen soldata kontzeptuan batuta ageri da.

3 ATALA: 1,5

Altzariak ekoizten dituen ALTZA22 SA enpresa orain bortz urte eratu zen, eta horretarako bazkideek egindako ekarpenekin indarrean dagoen legeak eskatzen duen gutxieneko kapital soziala osatu zuten.

Honako hau da ALTZA22 SA 20XXko urtarrilaren 1ean egindako inbentarioan biltzen den ondare-elementuen zerrenda baloratua eta bertze gisako kontabilitate-informazioa:

● Ekoiztutako altzariak biltegian	32.000 €
● Altzarien marka erregistratua	10.000 €
● Legeak Erreserbarako eskatzen duen gutxienekoa betetzen du	€
● Ekoizpenerako makineria eta tresneria	43.000 €
● Bulegoko altzariak	7.000 €
● Gestiorako zein ekoizpenerako ekipamendu informatikoa	14.000 €

• Instalazioak bere baitan hartzen dituen eraikina	200.000 €
• Langileriari emandako soldaten aurrerakinak	2.800 €
• Eraikinen orubea	40.000 €
• Ibilgailuen Leasing kontratuaren epe luzerako kuotak	24.000 €
• Ibilgailuen Leasing kontratuaren epe laburrerako kuotak	6.000 €
• Lehengaiak biltegian	8.000 €
• Ibilgetu materialaren amortizazio metatuaren saldoa (lursailak kenduta) haren erosketa- edo ekoizpen-balioaren %20koa da	€
• Ustiapeneko diru-sarrerak	1.500.000 €
• Ustiapeneko gastuak	1.100.000 €
• Zerga ondoko irabazia	160.000 €
• Eskudirua	2.000€
• Errenta finkoko baloreetan egindako epe luzeko inbertsioa	7.000 €
• Gasa, argindarra eta bertzelako hornikuntzak, ordaindu gabekoa	3.000 €
• Software-programa ezberdinak	3.000 €
• Makineria erosteagatik bi urtera ordaindu beharreko zorra	11.000 €
• Akzioetan egindako epe laburrerako inbertsioa	4.000 €
• Salmentengatik kobratzeko eskubideak, fakturretan dokumentatuak	15.000 €
• BEZ, SZ eta bertzelako zergak direla eta ordaindu beharreko zorra	12.000 €
• Onartutako kanbio-letren bidez bezeroei emandako kredituak	2.000 €
• Banku-kontu ezberdinetan aldeko saldoak	48.000 €

● Furgoneta zaharrak saltzeagatik 6 hilabetera kobratzekoa	1.000 €
● Bertze enpresa bati emandako mailegua, hiru urtera kobratzekoa	4.000 €
● Gizarte segurantzari ordaindu gabeko kuotak	5.000 €
● Lehengaien erosketak direla eta ordaindu gabeko fakturak	26.000 €
● Banku-kreditu kontuan itzultzeko dagoen saldoa	18.000 €
● Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak	?

Egin beharreko lana:

1. ETEen KPoren irizpideak jarraituz ALTZA22 SA enpresaren Egoera Balantzea osatu eta ezezaguna den Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak izeneko kontabilitate-kontuaren zenbatekoa kalkulatu.
2. Maniobra-Fondoa kalkulatu, hori lortzeko bi bideak erabiliz. Emaita komentatu.
3. Enpresaren finantza-egoera analizatu, honako ratioak kalkulatz eta emaitzak interpretatz:
 - a. Likideziaren Ratioa.
 - b. Acid Test delakoaren Ratioa.
 - c. Berehalako Altxortegiaren Ratioa.
 - d. Bermearen Ratioa.
 - e. Zorpetze osoaren Ratioa.
4. Enpresaren ekonomia-egoera analizatu, honako errentagarritasunak kalkulatz eta emaitzak interpretatz:
 - a. Errentagarritasun ekonomikoa. Honen bi osagaiak kalkulatu eta adierazi horietako zein den errentagarritasun ekonomikoaren oinarria.
 - b. Finantza-errentagarritasuna.

4 ATALA: 1,5 PUNTU

4A ARIKETA

Kotxe elektriko bat erosi nahi duzu eta honako hauek dira banku batek eskaini dizkizun aukerak:

- a) 15.000 euroko mailegu baterako, 60 hilabetera. Lehenengo hamabi hilabeteetan ITN: % 0,00. Gainerako hilabeteetan ITN: % 3,50. UTB: % 2,257.
- b) 15.000 euroko mailegu baterako, 60 hilabetera. Lehenengo hamabi hilabeteetan amortizazio geroratzea. ITN: % 3,50. UTB: % 3,557.
- c) 15.000 euroko mailegu baterako, 60 hilabetera. Lehenengo hamabi hilabeteetan interes eta amortizazio geroratzea. ITN: % 3,50. UTB: % 3,557.
- d) 15.000 euroko mailegu baterako, 60 hilabetera. ITN: % 3,50. UTB: % 3,557.

Kasu guztietan amortizazio-sistema frantziarra erabiliko da eta hileko kuotak dira. Esan aukera bakoitzean ordaindu behar den interes zenbatekoa (€tan).

4B ARIKETA

- a) 12 hilabeterako Altxor Letren azken enkantearen baldintzak honako hauek izan dira:

- Interes tasa marjinala: % 1,96.
- Batez besteko prezioa: %99,14

Kalkulatu ezazu enkante honen Altxor Letra baten gutxieneko prezioa.

- b) Inbertitzaile batek batez besteko prezioan Altxor Letra bat erosi du eta mugaeguna arte mantendu egiten du. Lan egiten duen finantza entitateak %0,2ko erosketa komisioa kobratzen dio eta amortizazio komisioa %0,225.

Kalkula ezazu inbertitzaile honek lortu duen urteko errentagarritasuna.

- c) Inbertitzaile berak batez besteko prezioan Altxor Letra bat erosi du baina orain jaulkipenetik 200 egun pasa direlarik, bigarren merkatuan saldu egiten du. Lortzen duen urteko errentagarritasuna %0,75 izan da. Lan egiten duen finantza entitateak %0,2ko erosketa komisioa kobratzen dio eta amortizazio komisioa %0,225

Kalkulatu ezazu letraren salmenta prezioa.

5 ATALA: 2 PUNTU

BAIKOR, S.L. enpresa Taxoare kalea, 18 B – 31.006 Iruña (Nafarroa)n kokatuta dago, IFZ-NIF B29805314 eta KKK-CCC 31/472536891 dituelarik. Enpresa honetan Alaia Ariztia Mendiburu langileak lan egiten du, lanaldi osoko kontratu mugagabearekin, 2014ko urtarrilak 15etik. Alaia administrazio burua da eta bulegoan lan egiten du, JESN-CNAE lan-istripu eta lan-gaixotasuneko kotizazio-tarifen “a” egitekora loturik dagoelarik (AB- IT %0,80 eta BHB- IMS % 0,70).

Alaiak 2 seme-alaba ditu eta urte osoko ordainsari gordin gisa 22.320 € aurreikusita dauzka, bere identifikazio datuak hauek direlarik: GSAZ-NASS: 31/1265876218 eta IFZ-NIF: 32670207M.

Langileak dirutan eskuratzen dituen hilabeteko ordainsariak ondoko hauek dira: 1.200 €ko oinarritzko soldata, 50 €ko dirua erabiltzeagatik plusa eta antzinasuna, oinarritzko soldataren %5a hirurteko bakoitzeko. Enpresak Alaiaren bi urteko semearen hartzaindegiko 220 €ko kuota hilabetero ordaintzen du.

2 aparteko ordainsari jasotzen ditu oinarritzko soldata gehi antzinasunarenak, uztaila eta abenduan jasotzen dituenak seihileko sortzapenarekin eta 600 €ko mozkinen gaineko aparteko beste ordainsaria irailean jasotzen duena, urteko sortzapenarekin.

Apirilean zehar, Alaiak laneko bidai bat egin du Madrilera, 8 egunetarako. Bere kotxearekin joan da 778 Km eginez joan etorrian. Enpresak 0,32 € /km ordaintzen dizkio, enpresako hitzarmenak finkatutakoaren arabera. Alaiak 650 €ko hotelaren faktura aurkeztu du enpresan (egonaldia soilik) eta 9,90 €ko bidesariko tiketak. Hitzarmenak dioen bezala, Madrilen eman duen egun bakoitzeko, 51€ ordainduko zaizkio dieta gisa. Aurreko guztiak, enpresak apirileko nominan ordaintzen dizkio.

Apirilaren 20an, lanerako bidean istripu bat izan du eta bajan jarraitzen du hilabetea bukatu bitarte.

Martxoko ordainagirian, gertakizun arrunten kotizazio oinarria 1.860 €koa izan zen eta gertakizun profesionalena, berriz, 1.960 €.

Apirilean ezinbesteko aparteko ordu batzuk egin ditu 140 € kobratuz. Aurreko urtean, aparteko orduengatik , denetara, 730 € jaso zituen.

EGITEKO LANA:

- a) Langilearen 2022 urteko apirileko soldata ordainagiria egin.
- b) Gizarte Segurantzari ordaintzeko kalkulua nola egingo zenuke formula baten bitartez adierazi.
- c) Gizarte Segurantzari ordainketa egiteko dokumentu eredu eta ordaintzeko epea adierazi.

GIZARTE SEGURANTZAKO TAULAK

KONTINGENTZIA ARRUNTEN KOTIZAZIO-OINARRIAK

Kotizazio Taldea	Lanbide Kategoria	Gutxieneko oinarriak euro hilean	Gehienerako oinarriak euro hilean
1	Ingeniariak eta Lizentziadunak. Langileen Estatutuak 1.3.c) artikuluan ez dauden goizuzendaritzako langileak.	1.629,30	4.139,40
2	Ingeniari Teknikoak, Perituak eta Laguntzaile Tituludunak	1.351,20	4.139,40
3	Administrazio eta Tailer Buruak	1.175,40	4.139,40
4	Laguntzaile Titulugabeak	1.166,70	4.139,40
5	Ofizial Administrariak	1.166,70	4.139,40
6	Mendekoak	1.166,70	4.139,40
7	Administrazio Laguntzaileak	1.166,70	4.139,40

LAN ISTRIPIU ETA LANBIDE GAIXOTASUNEN GEHIENERAKO KOTIZAZIOAK

GEHIENEZ	GUTXIENEZ
4.139,40	1.166,70

KOTIZAZIO TASAK:

AZALPENA	ENPRESA	LANGILEA	GUZTIRA
Kontingentzia Arruntak	23,60	4,70	28,60
Ezinbesteko aparteko orduak	12,00	2,00	14,00
Gainontzeko aparteko orduak	23,60	4,70	28,60
Langabezia tasa orokorra	5,50	1,55	7,05
Langabezia iraupen mugatuko kontratuak (lanaldi osoa eta partziala)	6,70	1,60	8,30
Soldata Bermatzeko Funtza (Fogasa)	0,20	---	0,20
Lanbide Heziketa	0,60	0,10	0,70

NAFARROA- PFEZ ATXIKIPENAK											
URTEKO SOLDATA	SEME-ALABA KOPURUA										
(€tan)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	GEHIAGO
> 11.250	4	2	---	---	---	---	---	---	---	---	---
> 12.750	6	4	2	---	---	---	---	---	---	---	---
> 14.250	8	6	4	2	---	---	---	---	---	---	---
> 16.750	10	8	6	4	1	---	---	---	---	---	---
> 19.750	12	11	9	7	6	4	---	---	---	---	---
> 23.250	13,5	12,2	11,5	8,7	7,7	5,7	3,6	---	---	---	---
> 25.750	14,6	13,3	12,6	9,9	9,2	7,8	5,8	3,8	0,8	---	---
> 28.250	15,8	14,5	13,7	12,4	10,7	8,9	7,9	5,9	3,9	0,9	---
> 32.250	17	16	15	13,6	12,5	10,8	10	8	7	5	2
> 35.750	18,1	17,1	16,5	14,7	14	13,3	12,2	10,2	9,1	7,1	6,1
> 41.250	20	19	18,3	16,9	16,2	15,5	13,7	12,4	11,3	10,2	9,2
> 48.000	22,1	21,5	20,9	18,9	18,3	17,7	16,6	15,6	14,5	13,4	12,3
> 55.000	24,1	23,5	23	22	21,5	20,9	19,8	18,7	17,7	16,6	15
> 62.000	26,1	25,5	24,5	24	23,5	22,9	21,9	21,4	19,8	18,7	17,2
> 69.250	28,3	27,7	27	26,6	25,5	25	24,4	22,9	21,8	20,3	19,3
> 75.250	29,6	29,2	28,3	27,3	27,2	26,2	26,1	24,5	23,4	22,3	21,3
> 82.250	30,8	30,5	30	29,4	29	28,3	27,7	26,6	25,6	24,5	23,9
> 94.750	32,2	31,7	31,2	30,8	30,4	30	29,5	28,9	27,8	26,8	25,7
> 107.250	33,5	33	32,6	32,3	32	31,5	31	30	29,5	28,5	28
> 120.000	35,1	34,8	34,6	34	33,5	32,9	32,4	31,3	30,7	29,7	29,1
> 132.750	36,2	36	35,8	35	34,5	33,9	33,4	32,8	32	31	30
> 146.000	38	37,5	37	36,5	35,5	34,9	34,4	34	33,5	32	31,5
> 200.000	40	39,8	39,4	39	38,5	38	37,5	35,5	34,5	33,7	33
> 280.000	42	41,5	41,2	40,8	40	39,5	39	37	36	35,2	34,5
> 350.000	43	42,9	42,8	42,5	41,5	41	40,5	38,5	37,5	36,7	36

Enpresa: Helbidea: IFK: GSKo kotizazioaren kontu-kodea:	Langilea: IFZ: GS-ko afiliazio zenbakia: Kotizazio-taldea:
---	--

Likidazio-aldia: 202...(e)koren(e)tik.....(e)ra **Egun guztiak:**

I. SORTZAPENAK

1. Soldatan jasoak

Oinarrizko soldata
 Soldata-osagarriak:

 Aparteko orduak.....
 Aparteko ordainsariak.....
 Gauzazko soldata.....

2. Soldataz kanpoko ordainak

Kalte-ordainak edo ordejarriak:

 Gizarte Segurantzako prestazioak.....
 Lekualdatze edo kaleratzeagatik kalte-ordainak.....

A. SORTZAPENAK, GUZTIRA.....

II. KENKARIAK

1. Gizarte Segurantzarako kotizazioak: %

Kontingentzia arruntak
 Langabezia.....
 Lanbide Heziketa.....
 Aparteko orduak.....

EKARPENAK, GUZTIRA.....

2. PFEZ.....
3. Aurrerakinak
4. Gauzatan jasotako produktuen balioa.....
5. Beste kenkari batzuk.....

B. KENTZEKO, GUZTIRA.....

JASOTZEKO LIKIDOA, GUZTIRA (A-B).....

Enpresaren sinadura eta zigilua
.....ko Jaso dut

III. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIETARAKO, BATERAKO DIRU-BILKETAREN KONTZEPTUETARAKO, PFEZrako ATXIKIPENERAKO OINARRIRAKO ETA ENPRESAREN EKARPENETARAKO KALKULUAK

	OINARRIAK	TASA	ENPRESAREN EKARPENA
1. Kontingentzia arruntak			
Hileko soldata.....			
Aparteko pagen hainbanapena			
GUZTIRA			
LI eta LG			
2. Kontingentzia profesionalak eta baterako diru-bilketaren kontzeptuak			
Langabezia			
Lanbide heziketa			
Soldata bermatzeko funtsa (FOGASA)			
Aparteko orduengatik kotizazio-gehigarria...			
PFEZrako atxikipenerako oinarria.....			

1 OINARRIZKO FINANTZAKETA

10 KAPITALA

100 Kapital soziala

101 Fondo soziala

102 Kapitala

103 Bazkideak, galdatu gabeko ordainketak

1030 Bazkideak, galdatu gabeko ordainketak, kapital soziala

1034 Bazkideak, galdatu gabeko ordainketak, kapital inskribatu gabea

104 Bazkideak, diruaz bestelako ekarpen egin gabeak

1040 Bazkideak, diruaz bestelako ekarpen egin gabeak, kapital soziala

1044 Bazkideak, diruaz bestelako ekarpen egin gabeak, kapital inskribatu gabea

108 Egoera bereziko akzio edo partaidetza propioak

Kapitala murrizteko akzio edo partaidetza propioak 11

ERRESERBAK ETA BESTELAKO ONDARE-TRESNAK 110

Jaulkipen- edo bereganatze-prima

111 Ondare garbiko bestelako tresnak

1110 Finantza-tresna konposatuak jaulkitzeagatik sortutako ondare garbia

1111 Ondare garbiko gainerako tresnak

112 Legezko erreserba

113 Borondatezko erreserbak

114 Erreserba bereziak

1140 Sozietate menderatzailearen akzio edo partaidetzetarako erreserbak

1141 Estatutu-erreserbak

1142 Kapital amortizatuaren erreserbak

1143 Merkataritza-fondoaren erreserba

1144 Bermetan hartutako akzio propioen erreserbak

115 Galdututako irabazi aktuariaren eta bestelako doikuntzen erreserbak

118 Bazkide edo jabeen ekarpenak

119 Kapitala eurotara doitzearen diferentziak

12 APLIKATU GABEKO EMAITZAK

120 Gaineratikoak

121 Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak

129 Ekitaldiko emaitza

13 DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA BALIO-ALDAKETEN DOIKUNTZAK

130 Kapitaleko diru-laguntza ofizialak

131 Kapital-dohaintzak eta -legatuak

132 Bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

133 Finantza-aktibo salgarrien balorazio-doikuntzak

134 Estaldura-eragiketak

1340 Diru-fluxuen estaldura

1341 Atzerriko negozio batean egindako inbertsio garbiaren estaldura

135 Bihurketa-diferentziak

136 Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteen eta elementu-multzto besterengarrien balorazio-doikuntzak 137

Hainbat ekitalditan banatzeko zerga-sarrerak 1370 Hainbat ekitalditan banatzeko zerga-sarrerak, diferentzia iraunkorrenak

1371 Hainbat ekitalditan banatzeko zerga-sarrerak, kenkari eta hobariarenak

14 HORNIDURAK

140 Pertsonalaren epe luzeko lantsarietarako hornidura

141 Zergetarako hornidura

142 Bestelako erantzukizunetarako hornidura

143 Ibilgetua eraisteko, erretiratzeko edo birgaitzeko hornidura

145 Ingurumen-jardueretarako hornidura

146 Berregituratzeetarako hornidura

147 Ondare-tresnen bidez ordaindu beharreko transakzioetarako hornidura

15 EZAUGARRI BEREZIKO EPE LUZEKO ZORRAK 150

Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako epe luzeko akzio edo partaidetzak

153 Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako akzio edo partaidetzak, galdatu gabeko ordainketak

1533 Galdatu gabeko ordainketak, taldeko enpresak

1534 Galdatu gabeko ordainketak, enpresa elkartuak

1535 Galdatu gabeko ordainketak, bestelako loturadun alderdiak

1536 Galdatu gabeko bestelako ordainketak

154 Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako akzio edo partaidetzak, diruaz bestelako ekarpen egin gabeak

1543 Diruaz bestelako ekarpen egin gabeak, taldeko enpresak

1544 Diruaz bestelako ekarpen egin gabeak, enpresa elkartuak

1545 Diruaz bestelako ekarpen egin gabeak, bestelako loturadun alderdiak

1546 Diruaz bestelako hainbat ekarpen egin gabe

16 LOTURADUN ALDERDIEKIKO EPE LUZEKO ZORRAK 160

Loturadun kreditu-erakundeeikiko epe luzeko zorrak 1603

Kreditu-erakundeeikiko epe luzeko zorrak, taldeko enpresak

1604 Kreditu-erakundeeikiko epe luzeko zorrak, enpresa elkartuak

1605 Kreditu-erakundeeikiko epe luzeko zorrak, bestelako loturadun alderdiak

161 Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak, loturadun alderdiak

1613 Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak, taldeko enpresak 1614

Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak, enpresa elkartuak 1615 Epe

luzeko ibilgetu-hornitzaileak, bestelako

loturadun alderdiak

162 Finantza-errentamenduagatik epe luzeko hartzekodunak, loturadun alderdiak

1623 Finantza-errentamenduagatik epe luzeko

hartzekodunak, taldeko enpresak

1624 Finantza-errentamenduagatik epe luzeko hartzekodunak, enpresa elkartuak

1625 Finantza-errentamenduagatik epe luzeko hartzekodunak, bestelako loturadun alderdiak

163 Loturadun alderdiekiko epe luzeko bestelako zorrak

1633 Epe luzeko bestelako zorrak, taldeko enpresak

1634 Epe luzeko bestelako zorrak, enpresa elkartuak

1635 Epe luzeko bestelako zorrak, bestelako loturadun alderdiak

17 HARTUTAKO MAILEGU, JESAPEN ETA ANTZEKO KONTEPTUENGATIKO EPE LUZEKO ZORRAK

170 Kreditu-erakundeeikiko epe luzeko zorrak

171 Epe luzeko zorrak

172 Diru-laguntza, dohaintza eta legatu bihur daitezkeen epe luzeko zorrak

173 Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak

174 Finantza-errentamenduagatik epe luzeko hartzekodunak

175 Epe luzera ordaintzeko efektuak

176 Epe luzeko eratorri finantzarioen pasiboak

1765 Epe luzeko eratorri finantzarioen pasiboak, negoziazio-zorroa

1768 Epe luzeko eratorri finantzarioen pasiboak, estaldura-tresnak

177 Obligazioak eta bonuak

178 Obligazio eta bonu bihurgarriak

179 Bestelako balore negoziagarrietan adierazitako zorrak

18 EPE LUZEKO FIDANTZEN, BERMEEN ETA ANTZEKOEN PASIBOAK

180 Epe luzerako hartutako fidantzak

181 Epe luzerako salmentengatik edo zerbitzu emateengatik hartutako aurrerakinak

185 Epe luzerako hartutako gordailuak

189 Epe luzeko finantza-bermeak

19 FINANTZAKETA-EGOERA IRAGANKORRAK

190 Jaulkitako akzio edo partaidetzak

192 Akzio-harpidedunak

194 Jaulkitako kapital inskribatu gabea

195 Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako jaulkitako akzio edo partaidetzak

197 Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako akzio harpidedunak

199 Finantza-pasibo moduan kontabilizatutako jaulkitako akzio edo partaidetza inskribatu gabeak

2 AKTIBO EZ-KORRONTEA

20 IBILGETU UKIEZINAK

200 Ikerketa

201 Garapena

202 Administrazio-emakidak

203 Jabetza industriala

204 Merkataritza-fondoa

205 Traspasatze-eskubideak

206 Aplikazio informatikoak

209 Ibilgetu ukiezinetarako aurrerakinak

21 IBILGETU MATERIALAK

- 210 Lurrak eta ondasun naturalak
 - 211 Eraikuntzak
 - 212 Instalazio teknikoak
 - 213 Makineria
 - 214 Tresneria
 - 215 Bestelako instalazioak
 - 216 Altzariak
 - 217 Informazioa prozesatzeko ekipamenduak
 - 218 Garraio-elementuak
 - 219 Bestelako ibilgetu materiala
 - 22 ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK
 - 220 Lur eta ondasun naturalak inbertsioak
 - 221 Eraikuntzetako inbertsioak
 - 23 BIDEAN DIREN IBILGETZE MATERIALAK
 - 230 Lur eta ondasun naturalen egokitzapena
 - 231 Egitze-bideko eraikuntzak
 - 232 Muntatze-bideko instalazio teknikoak
 - 233 Muntatze-bideko makineria
 - 237 Muntatze-bideko informazioa prozesatzeko ekipamenduak
 - 239 Ibilgetu materialetarako aurrerakinak
 - 24 LOTURADUN ALDERDIETAN EGINDAKO EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK
 - 240 Loturadun alderdietan egindako epe luzeko partaidetzak
 - 2403 Taldeko enpresetan egindako epe luzeko partaidetzak
 - 2404 Enpresa elkartuetan egindako epe luzeko partaidetzak
 - 2405 Bestelako loturadun alderdietan egindako epe luzeko partaidetzak
 - 241 Loturadun alderdien epe luzeko zorra adierazten duten baloreak
 - 2413 Taldeko enpresen epe luzeko zorra adierazten duten baloreak
 - 2414 Enpresa elkartuen epe luzeko zorra adierazten duten baloreak
 - 2415 Bestelako loturadun alderdien epe luzeko zorra adierazten duten baloreak
 - 242 Loturadun alderdiekiko epe luzeko hartzeak
 - 2423 Taldeko enpreseko epe luzeko hartzeak
 - 2424 Enpresa elkartuekiko epe luzeko hartzeak
 - 2425 Bestelako loturadun alderdiekiko epe luzeko hartzeak
 - 249 Loturadun alderdietan egindako epe luzeko partaidetzen gabe egin gabeko ordainketak
 - 2493 Taldeko enpresetan egindako epe luzeko partaidetzen gabe egin gabeko ordainketak
 - 2494 Enpresa elkartuetan egindako epe luzeko partaidetzen gabe egin gabeko ordainketak
 - 2495 Bestelako loturadun alderdietan egindako epe luzeko partaidetzen gabe egin gabeko ordainketak
 - 25 EPE LUZEKO BESTELAKO FINANTZA-INBERTSIOAK
 - 250 Ondare-tresnetan egindako epe luzeko finantza inbertsioak
 - 251 Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak
 - 252 Epe luzeko hartzeak
 - 253 Ibilgetua besterentzeagatik epe luzeko hartzeak
 - 254 Pertsonalarekiko epe luzeko hartzeak
 - 255 Epe luzeko eratorri finantzarioen aktiboak
 - 2550 Epe luzeko eratorri finantzarioen aktiboak, negozio-zerroa
 - 2553 Epe luzeko eratorri finantzarioen aktiboak, estaldura tresnak
 - 257 Pertsonalaren epe luzeko lantzeriei buruzko aseguru kontratuetatik eratorritako kobratzeko eskubideak
 - Epe luzeko ezarpenak
 - 259 Epe luzeko ondare-partaidetzen gabe egin gabeko ordainketak
 - 26 EPE LUZERA ERATUTAKO FIDANTZA ETA GORDAILUAK
 - 260 Epe luzeko eratutako fidantzak
 - 265 Epe luzeko eratutako gordailuak
 - 28 IBILGETUAREN AMORTIZAZIO METATUA
 - 280 Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua
 - 2800 Ikerketen amortizazio metatua
 - 2801 Garapenaren amortizazio metatua
 - 2802 Administrazio-emakiden amortizazio metatua
 - 2803 Jabetza industrialaren amortizazio metatua
 - 2805 Traspasatze-eskubideen amortizazio metatua
 - 2806 Aplikazio informatikoen amortizazio metatua
 - 281 Ibilgetu materialaren amortizazio metatua
 - 2811 Eraikuntzen amortizazio metatua
 - 2812 Instalazio teknikoaren amortizazio metatua
 - 2813 Makineriaren amortizazio metatua
 - 2814 Tresneriaren amortizazio metatua
 - 2815 Bestelako instalazioen amortizazio metatua
 - 2816 Altzarien amortizazio metatua
 - 2817 Informazioa prozesatzeko ekipamenduen amortizazio metatua
 - 2818 Garraio-elementuen amortizazio metatua
 - 2819 Bestelako ibilgetu materialaren amortizazio metatua
 - 282 Ondasun higiezinetak inbertsioen amortizazio metatua
 - 29 AKTIBO EZ-KORRONTEN BALIO-NARRIADURA
 - 290 Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura
 - 2900 Ikerketaren balio-narriadura
 - 2901 Garapenaren balio-narriadura
 - 2902 Administrazio-emakiden balio-narriadura
 - 2903 Jabetza industrialaren balio-narriadura
 - 2905 Traspasatze-eskubideen balio-narriadura
 - 2906 Aplikazio informatikoen balio-narriadura
 - 291 Ibilgetu materialaren balio-narriadura
 - 2910 Lur eta ondasun naturalen balio-narriadura
 - 2911 Eraikuntzen balio-narriadura
 - 2912 Instalazio teknikoaren balio-narriadura
 - 2913 Makineriaren balio-narriadura
 - 2914 Tresneriaren balio-narriadura
 - 2915 Bestelako instalazioen balio-narriadura
 - 2916 Altzarien balio-narriadura
 - 2917 Informazioa prozesatzeko ekipamenduen balio-narriadura
 - 2918 Garraio-elementuen balio-narriadura
 - 2919 Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura
 - 292 Ondasun higiezinetak inbertsioen balio-narriadura
 - 2920 Lur eta ondasun naturalen balio-narriadura
 - 2921 Eraikuntzen balio-narriadura
 - 293 Loturadun alderdietan egindako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura
 - 2933 Taldeko enpresetan egindako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura
 - 2934 Enpresa elkartuetan egindako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura
 - 294 Loturadun alderdien epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura
 - 2943 Taldeko enpresen epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura
 - 2944 Enpresa elkartuen epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura
 - 2945 Bestelako loturadun alderdien epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura
 - 295 Loturadun alderdiekiko epe luzeko hartzeak balio-narriadura
 - 2953 Taldeko enpreseko epe luzeko hartzeak balio-narriadura
 - 2954 Enpresa elkartuekiko epe luzeko hartzeak balio-narriadura
 - 2955 Bestelako loturadun alderdiekiko epe luzeko hartzeak balio-narriadura
 - 297 Epe luzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura
 - 298 Epe luzeko hartzeak balio-narriadura
- 3 IZAKINAK
- 30 MERKATARITZAKOAK
 - 300 A salgaiak
 - 301 B salgaiak
- 31 LEHENGAIK
 - 310 A lehengaiak
 - 311 B lehengaiak
- 32 BESTELAKO HORNIKUNTZAK
 - 320 Elementu eta multzo txertagarriak
 - 321 Erregaiek
 - 322 Ordezko piezak
 - 325 Hainbat material
 - 326 Bilgarriak
 - 327 Ontzikak
 - 328 Bulegoko materiala

33 FABRIKAZIO-BIDEKO PRODUKTUAK

- 330 Fabrikazio-bideko A produktuak
- 331 Fabrikazio-bideko B produktuak

34 PRODUKTU ERDIBUKATUAK

- 340 A produktu erdibukatua
- 341 B produktu erdibukatua

35 PRODUKTU BUKATUAK

- 350 A produktu bukatua
- 351 B produktu bukatua

36 AZPIPRODUKTUAK, HONDARRAK ETA MATERIAL BERRESKURATUAK

- 360 A azpiproduktuak
- 361 B azpiproduktuak
- 365 A hondarrak
- 366 B hondarrak
- 368 A material berreskuratuak
- 369 B material berreskuratuak

39 IZAKINEN BALIO-NARRIADURA

- 390 Salgaien balio-narriadura
- 391 Lehengaien balio-narriadura
- 392 Bestelako hornikuntzen balio-narriadura
- 393 Fabrikazio-bideko produktuen balio-narriadura
- 394 Produktu erdibukatuen balio-narriadura
- 395 Produktu bukatuen balio-narriadura
- 396 Azpiproduktu, hondar eta material berreskugarrien balio-narriadura

4 MERKATARITZA-ERAGIKETENGATIKO HARTZEKODUN ETA ZORDUNAK

40 HORNITZAILEAK

- 400 Hornitzaileak
 - 4000 Hornitzaileak (eurotan)
 - 4004 Hornitzaileak (atzerri-monetan)
 - 4009 Hornitzaileak, hartu edo formalizatu gabeko fakturak
- 401 Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak 403 Hornitzaileak, taldeko enpresak
 - 4030 Hornitzaileak, taldeko enpresak (eurotan)
 - 4031 Ordaintzeko merkataritza-efektuak, taldeko enpresak
 - 4034 Hornitzaileak, taldeko enpresak (atzerri-monetan)
 - 4036 Hornitzaileei itzultzeko ontziak eta bilgarriak, taldeko enpresak
 - 4039 Hornitzaileak, taldeko enpresak, hartu edo formalizatu gabeko fakturak
- 404 Hornitzaileak, enpresa elkartuak
- 405 Hornitzaileak, bestelako loturadun alderdiak
- 406 Hornitzaileei itzultzeko ontziak eta bilgarriak

407 Hornitzaileei emandako aurrerakinak

41 HAINBAT HARTZEKODUN

- 410 Zerbitzu-emeategatiko hartzekodunak
 - 4100 Zerbitzu-emeategatiko hartzekodunak (eurotan)
 - 4104 Zerbitzu-emeategatiko hartzekodunak, (atzerri monetan)
 - 4109 Zerbitzu-emeategatiko hartzekodunak, hartu edo formalizatu gabeko fakturak
- 411 Hartzekodunak, ordaintzeko merkataritza-efektuak
- 419 Baterako eragiketengatik hartzekodunak

43 BEZEROAK

- 430 Bezeroak
 - 4300 Bezeroak (eurotan)
 - 4304 Bezeroak (atzerri-monetan)
 - 4309 Bezeroak, formalizatu gabeko fakturak
- 431 Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak
 - 4310 Zorroko merkataritza-efektuak
 - 4311 Deskontatutako merkataritza-efektuak
 - 4312 Kobrantza-kudeaketan dauden merkataritza efektuak
 - 4315 Merkataritza-efektu ordaindugabeak
- 432 Bezeroak, «factoring» eragiketak
- 433 Bezeroak, taldeko enpresak
 - 4330 Bezeroak, taldeko enpresak (eurotan)
 - 4331 Kobratzeko merkataritza-efektuak, taldeko enpresak
 - 4332 Bezeroak, taldeko enpresak, «factoring» eragiketak
 - 4334 Bezeroak, taldeko enpresak (atzerri-monetan) 4336 Bezeroak, taldeko enpresak, kobrantza dudagarrikoak
 - 4337 Bezeroei itzultzeko ontziak eta bilgarriak, taldeko enpresak
 - 4339 Bezeroak, taldeko enpresak, formalizatu gabeko fakturak

434 Bezeroak, enpresa elkartuak

- 435 Bezeroak, bestelako loturadun alderdiak
- 436 Kobrantza dudagarriko bezeroak
- 437 Bezeroek itzultzeko ontziak eta bilgarriak
- 438 Bezeroek emandako aurrerakinak

44 HAINBAT ZORDUN

- 440 Zordunak
 - 4400 Zordunak (eurotan)
 - 4404 Zordunak (atzerri-monetan)
 - 4409 Zordunak, formalizatu gabeko fakturak
- 441 Zordunak, kobratzeko merkataritza-efektuak
 - 4410 Zordunak, zorroko merkataritza-efektuak
 - 4411 Zordunak, merkataritza-efektu deskontatuak
 - 4412 Zordunak, kobrantza-gestioko merkataritza-efektuak
- 4415 Zordunak, merkataritza-efektu ordaindugabeak 446 Kobrantza dudagarriko zordunak
- 449 Baterako eragiketengatik zordunak

46 PERTSONALA

- 460 Lansarien aurrerakinak
- 465 Ordaintzeko dauden lansariak
- 466 Ordaintzeko dauden zehaztutako ekarpen-sistema bidezko ordainsariak

47 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

- 470 Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zorduna
 - 4700 Ogasun Publikoa, BEZagatik zorduna
 - 4708 Ogasun Publikoa, emandako diru-laguntzengatik zorduna
 - 4709 Ogasun Publikoa, zerga-itzulketagatik zorduna
- 471 Gizarte Segurantzako erakundeak, zordunak 472 Ogasun Publikoa, jasandako BEZa
- 473 Ogasun Publikoa, atxikipenak eta konturako ordainketak
- 474 Zerga geroratuak aktiboak
 - 4740 Denborazko diferentzia kengarrien aktiboak
 - 4742 Oraindik aplikatu gabeko kenkari eta hobarien eskubideak
 - 4745 Ekitaldiko galarak konpentsatzeko hartzekoa
